

# Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

## Geopolitika eta anti-industria Oscarretan

HOLLYWOODEKO ordezkari aske eta garbiek [barreak] erabaki dute dagoeneko nortzuk merezi dituzten igandean banatuko diren Oscarrek. Baina Film Onenaren eta Ingelese Ez Den Film Onenaren sariak faborito direnek irabazten badituzte, kuriosoa izango da.

Ingelese Ez Den Film Onenaren hautagai kutunak *A separation (Jodaeiye Nader az Simin)* du izena. Harrigarria da istorio xume eta itxuraz arruntak zenbat sakontasun eta emozio gorde ditzakeen bere baitan: garrantzi gutxiko lapurreta bat, nahi gabe emandako bultzada, bikote baten banaketa hasiera batean hutsala... zama pisutsu bilakatuko dira eta bueltarik gabeko bide malkartsuan amilduko, ertz ugariko errealitatearen isla. Iraniarra da Asghar Farhadi zuzendariaren pelikula hau. Mahmoud Ahmadinejaden Gobernuak arbuiaturiko zuzendari iraniarrei elkartasuna adierazteagatik –tartean Jafar Panahi kartzelaratu edo Bahman Ghobadi erbesteratu–, filmaren errodajea gelditzera behartu zuten Farhadi. Barkamena eskatu ostean, ordea, eta batez ere nazioartean sariz sari dabilenetik, Teheranen babes sutua du pelikulak. Farhadik berak, diplomazia handiz erantzuten ditu kazetarien galdera arantzatsuenak, batzuk zein besteak ez mintzeko hitzak neurtuz. Kontua zera da, Ahmadinejaden sostengua duen lan batek lortuko al du Oscarra? Zentebaterainoko eragina izan dezake AEBen eta Iranen arteko gatazkak? Ezinikusial salto egingo al du zazpi-garren artera? Hori gutxi ez eta Ekialde Ertaineko interes politikoen *ménage à trois* honetan beste protagonistetako bat den Israel ere hautagai da sari bererako, *Hearat Shulayim (Footnote)* lanarekin.

Pelikula Onenaren garaikurra jasotzeko berriz, estreinatu zenetik urratutako bide arrakastatsuan jada makina bat sari lortu dituen *The Artist* ekoizpen fran-



tziazarrak aukera handiak ditu. Zuri-beltzean, mutua eta industriaren aurrekontu hanpatuetatik aldentua, Oscarra ematea bere buruari harrika egitea bezalatsu litzateke: batetik, ikusgarritasunaren, efektu berezien eta hiru dimentsioen aldeko apustua egiten duen Hollywoodeko ereduaren kontrako norabidean doalako. Michel Hazanavicius zuzendariak erakutsi du, modu originalean kontatutako istorio fresko eta burutsuek harrera bikaina dutela kritikaren eta publikoaren artean. Bestetik, zeharkakoa baina argia delako *The Artist*-ek industriaren barrunbeei egiten dien kritika, zinemak berak sortutako produktuak gailurrean paratzeko eta handik lokatzetara jaurtitzeko duen trebezia salatuz.

Dena den, biak ala biak izan daitezke garaile. Industriak maisutasunez daki *mainstream*-etik kanpo dagoena irensten, barneratzen eta bere egiten. Edo, ikuspegi baikorragotik, Oscarrak kultur ekitaldia dira [barreak berriz] eta jakin badakigu kultura ez dagoela interes politikoen, industriaren apeten, faktore ekonomikoen eta marketin operazioen menpe [barre algarak].



Arabako kuadrilla arteko  
**BERTSO TXAPELKETA**  
2012

Antolatzailea: Edelele Nagusiak

Partenariak: bertsozale, radio vitoria, Odra Social Fundación 'la Caixa', yedigen

### 3. ASTEBURUA

Otsailak 24, 25:

Gasteizko Eguzkilore elkarte  
Gasteizko Aizkora tabernan  
Oiongo Azkenak elkarte  
Aramaioko Eskolako jantokian

### FINALERDIAK

Martxoak 10, 11

Zigoitia, Araia

**FINALA**

Martxoak 24

Aramaioko

[www.arabakotxapelketa.org](http://www.arabakotxapelketa.org)

**argia**